



taxi kitto!



**Aratosteetarako
motorrak berotzen**

Argitaratzailea

"...eta kittito!" Euskara Elkartea
Urkizu, 11 - solairuartera.
20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Maidar Aranberri,
Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta
Eibarko ikastetxeak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa

Maidar Aranberri eta
Ekhi Belar.

Maketazioa

Ana Aizpurua.

Azaleko argazkia

Malen Jainaga

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96



Gipuzkoako Foru Aldundia

● - Jaimito,
badakizu igeri
egiten?
- Bai, andereño.
- Eta non ikasi duzu?
- Uretan!



● - Ama, ama! Eskolan
oso despistatua
naizela esaten dute.
- Ez egin kasurik eta egon
zaitez lasai! Baina, barkatu,
ni ez naiz zure ama, auzoko
bizilaguna naiz.



● Nola esaten da Afrikan
amama hil egin da?

Amamaganbajandajuanda



● Zer esaten dio begi
batek beste bati?
Hain hurbil eta ez gara
ikusten!

● Haginak garbitzeko
zepilloak:
- Batzuetan uste dut
munduko lanik txarrena
dudala.
Eta komunak:
- Ziur zaude...?



● - Ama, harro nago!
- Zergatik?
- Puzzle bat 9
hilabetetan amaitu
dudalako eta kaxan jartzen
du 3 urtetik 5era!



● 2 enpresaburu
hizketan:
- Zelan lortzen duzu
zure langileak lanera
garaiz heltzea?
- Errez, 30 langile
ditut eta 20
aparkaleku!



● Zer esaten
dio haitz
batek
beste bati?
- Ze gogorra den
bizitza!



bitxikiakeriak



PAILAZO-ARRAIN
JAIOBERRI BATEK
400 KM EGIN
DITZAKE ETXE
BILA.



8 URTE, 7 HILABETE
ETA 6 EGUNEZ GARRASI
EGITEN BADUZU,
KAFFE KATILU BAT
BEROTZEKO ADINA
ENERGIA SORTUKO
DUZU.

KATUEK
URRUMA EGITEN
DUTENEAN POZIK
DAUDELA ESAN
NAHI DU.



1883. URTEAN,
INDONESIAKO
KRAKATOA
SUMENDIAREN
ERUPZIOAREN
INDARRA AUSTRALIAN ENTZUN
ZEN, HAU DA, 4.800 KILOMETROKO
DISTANTZIARA.




PETROLIO-
TANTA BAKAR
BATEK 25 LITRO
UR EDANGARRI
KUTSA DITZAKE.



Lehiaketa

7 desberdintasunak



Bidali erantzunak **otsailak 7** baino lehen
...eta kitto! Euskara Elkartea- Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....

Adina..... Tel.



Eñaut Cobo sariak jasotzen.

Aurreko hileko irabazlea, Eñaut Cobo

Zorionak Eñaut! Aurreko aleko erantzunak bikain asmatu dituzu eta zozketan zeu irten zara irabazle. Ipuina eta ...eta kitto!-ko kamiseta zuretako! ZORIONAK txapeldun!

Go!azenekoak gure artean egon dira



Ederto pasatu zuten urtarrilaren 12an Coliseo Antzokian “Go!azen 6-0” ikustera joan zirenek. 2 saio egin zituzten eta, aurreko urteetan bezala, umorea, musika eta dantza izan ziren ikuskizunaren ardatzak.

■ ARATOSTEERATAKO Play-Back lehiaketan izena emateko epea zabalik

Otsailaren 14ra arte egongo da zabalik Aratosteetako Play Back lehiakerako izen-ematea. Eibarko ikastetxeetako LH 5. edo 6. mailetako ikasleek hartu ahal izango dute parte. Ezinbestekoa izango da kokoz jantzita joatea, eta taldeak, asko jota, SEI lagunez osatutakoak izango dira. Partaide edo talde bakoitzak abesti bakarraren play-backa eta dantza egingo ditu. Epaimahaiak koreografia eta play-backa egiteko modua edukiko ditu kontuan. Play-backera aurkeztutako ABESTIAK EUSKARAZ izan behar dira. Interprete, koreografia eta mozorro onenarentzat sari bereziak egongo dira, eta parte-hartzaile guztiek jasoko dute saria. Izena emateko zer egin behar duzuen jakiteko kartelak banatu dira ikastetxe guztietan.



Lourdes Uriarte eta Gari Corrales: “Basarriko oporrak dittut umetako oroitzapen polittanak”

Lourdes amama Eibarren jaio zen orain dela 58 urte eta bertan bizi da. Hiru ilobaren amama da, Gari, Jare eta Ekai, eta horietako nagusienak, Garik, elkarrizketa egin dio. Gustora jardun dute berriketan, Ekairen begiradapean.



- Amama, asko aldatu da Eibar zu txikia zinetetik? Zertan aldatu da gehien?

Asko aldatu da, bai. Lehen fabrika gehixao zeuzen, kotxe gitxiago eta jende gehixao ikusten zan kalia.

- Zer utziko zenuke berdin?

Lehenago lasaittasuna lagako neban bardin. Kotxe gitxiago zebizenez lasaixago ibiltzen giñan kalia. Bakarrik juaten giñan leku guztietara; ni Alfako

eskolan nebillen eta 6 urtekin bakarrik juaten giñan. Oin gauzak asko aldatu dira.

- Zer egiten zenuten ingurumena zaintzeko?

Ez genduan ezer lurrera botatzen, eta lehen ez zeuan horrenbeste plastiko. Adibidez, periodiko papela asko erabiltzen zan, gauza askotarako, eta botillak kristalezkuak ziran eta ez plastikozkuak. Ardua edo eroatera juaten giñan kristalezko botillian emoten

Orduan ez zeuan telebistako mandorik! Katez aldatu nahi bazenduan sofatik jaiki bihar!

zeskuen eta gero botillia bueltatzen bazenduan, dirua emoten zetsuen, 10 bat pezeta.

- Etxean laguntzen zenuten? Zertan?

Bai, eta txiki-txikittatik gaiñera: ohiak egitten, amari errekaak egitten laguntzen... Basarrikan geuzenian amama astuakin bajatzen zan Eibarrera eta gu berakin. Plazara juaten giñan esnia eta basarriko beste produktu batzuk saltzera.

- Eskolan zer moduz?

Ba, hor be asko aldatu dira gauzak; ez zeuan ez internet, ez ordenadorerik eta ederto konpontzen giñan. Asko idazten genduan eta diktauak egunero! Neskak eta mutilak bananduta geuzen, neskak gela batian eta mutilak beste batian, eta gelara igotzeko be neskak eskumatik igotzen giñan eta mutilak ezkerretik.

- Zertara jolasten zenuen lagunekin?

Kalian jolasten genduan, burdiñezko patifekin (demaseko pisua zeken!), soka edo gomasaltuakin, txorro-morrora... Eta basarrikan egoten giñan, adar edo egur zati batekin zenbat gauza egitten genduaz!

- Erosketak egiteko modua ere asko aldatuko zen, ezta?

Bai, bai, lehen ez zeuzen gaur egungo kate eta denda haundirik. Auzuetako denda txikixetan erosten genduan, eta gu, aitta Alfako bihargiña zanez “ekonomatora” juaten giñan eroatera. 1099



zan aittan numerua eta bertara juan eta sortea egitten zebe, txandia emoteko.

- Euroa existitzen zen?

Eeez, sasoi hartan ez zeuan eurorik, guk pezeta erabiltzen genduan: durua, 100 pezetako billetia...

- Euskeraz egiten zenuten?

Etxian bakarrik, kalia eta eskolan erderaz, euskeria debekatuta zeuan-eta.

- Gehien gogoratzen duzun umetako oroitzapen bat?

Oporrak basarrikan, hori da nere oroitzapenik onena. Ze gustora ibiltzen giñan han... jolasian, libre...

- Telebista lehenengo aldiz ikusi zenuen eguna gogoratzen duzu?

Nobedade haundixa izan zan etxian. Eta ez zan oin modokua, e? Zuri-beltzian zan, kate bakarra zeuan eta ordu batzutan emititzen zebe bakarrik. Gero etorri ziran kate gehixao, baiña orduan ez zeuan mandorik! Katez aldatu nahi bazenduan sofatik jaiki bihar!



AMAÑA

Litxarkeri dendara joan eta hartu dituzun gozokiak zenbat kostatuko zaizkizun jakiteko gai al zara? Eta dendariak zenbat bueltatu behar dizu? Egoera horretan edota egunerokoan sortzen diren beste hainbat arazori aurre egiteko, Amañako eskolan betiko matematiketatik haratago doazen gaitasunak lantzen hasi gara jolasen bidez.



SAN ANDRES

5.mailako neska-mutilek ALFA enpresaren historia eta gaur egun egiten duten lana ezagutzeko aukera paregabea izan dute.

Bisita bi egunetan egin zuten. Lehenengo egunean, azaroaren 13an, ALFA enpresaren historiaren inguruan hainbat datu eman zizkieten: noiz sortu zen, zer fabrikatzen zuten, zein izan den bere ibilbidea 100 urte hauetan...

Bigarren bisita egunean, abenduaren 19an, 5.mailako ikasleak jostunak bihurtu ziren, eta josteko makinaren funtzionamendua ezagutu ondoren Gabonetako apaingarri politak diseinatu eta josi zituzten. Ikasleek eurek asmatutako leloak eta koloreztatutako hostoak dira.



ALDATZE

EZBERDINTASUNAK MAITATUZ!

Gure inguruan zaletasun desberdinak dituzten lagunak ditugu, ezgaitasun fisikoak dituzten lagunak ere bai, ibilkera desberdina duten pertsonak, komunikatzeko keinuak egiten dituztenak... denetarik! Eta agian zu zeu zara horietako bat!

Aldatzen 5. mailako ikasleek DBHko ikasle eta beste gonbidatu batzuekin esperientziak elkartrukatzeko eta ezberdinak diren pertsonen batzuetan izaten dituzten zailtasunei aurre egiten laguntzeko solasaldi interesgarri batzuk egin zituzten abenduan. Argi dago taldean babestua sentzitzeak, inguruko guztien esfortzuak, onarpenak... ezinbestekoak direla ezberdintasunean pozik bizitzeko!



Argazkian 5. mailakoak Ander Romarate igerilariarekin.

LA SALLE

Abenduaren 3an Euskararen Eguna Eibarko ikastetxe guztiekin bat eginik ospatu genuen. Gela bakoitzean "euskararen sarea"ren bitartez euskarak lotzen gaituen haria dela irudikatu genuen. Gero txikiek goizetik eta LHkoek arratsaldean Untzagako dantzaldi erraldoian parte hartu genuen.

19an Olentzeroren bisita izan genuen txikitxoentzat. Berarekin hitzegin ondoren, txupeteak oparitu, bere kanta abestu eta argazkia atera genuen aitaxo eta amatxori erakusteko. Arratsaldean Gabonetako jaialdia ospatu genuen eta izugarritzko arrakasta izan genuen gurasoz eta aiton-amonez gainezka!!!



URKIZU

Abenduak 19an Olentzeroren bisita jaso genuen eskolan eta opariak ekarri zituen H.H. eta 1. mailakoentzat. Poz-pozik egon ginen ekitaldi horretan. Olentzerori abestu, kontuak esan eta opariak eskatu genizkion.

Abenduaren 20an Olentzeroren kalejira egin genuen ikastetxe osoak trikitilarien laguntzarekin. Gabon kantak abestu genituen auzoan zehar. Eta 3.A mailakoak igeriketan trebatzen jardun dute: Orbea polikiroldegian igeriketa ikastaroa abenduan hasi eta urtarrilaren 10ean bukatu zuten.



URKI

Urte Berri on denoi Arrateko Andra Mari ikastetxetik! Hemen gara berriro lanerako gogotsu eta hainbat ekintza egiteko prest:

Urtarrilaren 13tik 16ra bitarte, LH5. eta 6. mailakoek "Heziketa afektibo Sexuala" tailerra izango dute, 16an, 6. mailako ikasleek, odol-emaielen tailerra eta 17an San Andres eskolara joango dira antzerki bat ikustera. LH4. mailakoak, urtarrilaren 15ean Armagintza museora joan dira bisitan eta LH1. eta 2. mailakoak Alluitz Natura Baserrira.



ITURBURU

Iturburura bueltatu gara 2020. urte berri hau estreinatzerara! Opor ederren ostean gogoz eta gauza berriak ikasteko irrikitan!

Beti bezala eta ohitura onei eutsiz lehenengo eguna jolastuz eta abestuz eman genuen gurean. Berriro ospatu genuen euskararen eguna. Ez baitago modu hoberik hiruhileko berriari hasiera emateko euskaraz jolastuz baino.

Oso ondo pasatu genuen eta jolas dibertigarriak egin genituen. Horren adibide zapiaren jolasa da. Zapiaren bila irteten zirenak euskarari buruzko galdera bat erantzun edo gure kulturarekin zerikusia zuten frogak egin behar zituzten. Itzelezko barreak egin genituen!!





Laino itxurako arrautzak

Beharko ditugun osagaiak:

- Arrautzak
- Gazta parmesanoa edo beste gazta motaren bat
- Gatza
- Piper-hautsa
- Usain-belarrak



Nola egingo dugu:

- 1.- Lehenengo eta behin zuringoa eta gorringoa bereiztuko ditugu. Zuringoari gatz apur bat bota eta harrotu.
- 2.- Zuringoari gehitu gazta, piper-hautsa eta usain-belarrak, nahi izanez gero.
- 3.- Zuringoaren erdian zulo bat egin, gero gorringoa bertan jartzeko, eta sartu labean 10 minutuz 180 gradutan.
- 4.- Zabaldu labea eta sartu gorringoa zuringoaren erdian, eta laberatu beste 2 minutu gehiago.



Kerplunk

Jolas dibertigarri hau zuek egin ahal izango duzue, gauza gutxirekin eta oso erraz. Beharko duzuen hauxe: zulotxodun potea (mahai-tresnei ura kentzekoa izan daiteke, edo kartoizkoa egin dezakezue), lastotxoak eta ponpoiak. Nola jolasten da? Oso erraza da. Lastotxoak kentzen joango gara bolatxo edo ponpoiak erortzen utzi gabe. Bolatxo gutxien botarazten dituenak irabaziko du jolasa.



La Salle Isasiko 6. mailako ikasleek ikaskide berri bat dute aurten, Eritreatik etorritako errefuxiatu bat. Horren harira, errefuxiatuen gaiaren inguruko gauzak ikasteko lanketa egin dute, eta ikasitakoa ikastetxeko beste ikasleei igorri diete.



Errefuxiatuen gaia landu duzue eskolan. Zer ikasi duzue?



URKO LANDA,
11 urte

Gauza asko ikasi ditugu. Adibidez, munduan 50.000 errefuxiatu baino gehiago dagoela oso egoera txarrean bizitzen. Euren bizitza sakrifikatzen dute bizitza hobea eduki ahal izateko. Hona etortzen direnek diru asko ordaintzen dute bidaia egin ahal izateko, eta euretako asko bidean hiltzen dira.



NEREA LLAMAS,
11 urte

Hasieran irakasleak hainbat paper eman zizkigun errefuxiatuei buruzko informazioarekin. Gero, mapa batean ikusi genuen non dauden errefuxiatuak, non falta den janari gehien, eta abar. Landutakoa kartulina batean islatu genuen eta errefuxiatuak zer diren azaldu genien 2. mailako ikasleei. Gure bizitzarekin konparatuz gero, harrigarria da eurena.



IKER ORTEGA,
11 urte

Gustora egin dut errefuxiatuen inguruko lan hau, oso interesgarria delako, baina baita gogorra ere. Lana taldeetan egin dugu eta kartulinetan jaso dugu errefuxiatuei buruzko informazioa (nondik datozen, eta abar). Gainera, hainbat bideo ikusi ditugu informazioa jasotzeko. Orain gehiago ohartzen naiz gai honetaz.



XABIER BARRUETA-BEÑA,
11 urte

Gai honek asko hunkitu nau. ACNURek egiten duen lanaren berri izan dugu, errefuxiatuak hartu eta zaintzen dituela. Gogorra da, izan ere, 7 pertsonako familia batek ur botila bat eta lau naranja izaten ditu egunean. Pentsa, 17 urte bizi dira horrela!



NEREA ARIZAGA,
11 urte

Kartulinetan jaso dugun moduan, errefuxiatuak nondik datozen ikusi dugu. Hala ere, bidea oso gogorra izaten da eurentzat eta Melillan, adibidez, hesi erraldoiak jartzen dizkiete eta poliziak ez die pasatzen uzten. Eritreko gure ikaskideak berak bizitako esperientzia kontatu digu, baina ez du gehiagi gogoratu nahi oso gogorra da-eta. Euren tokian jartzen saiatu naiz.



JONE ALCALDE,
11 urte

Munduan gerrak eta horrelako gatazkak gertatzen direlako daude errefuxiatuak. Hori gogorra da, baina ondoren egiten duten bidea ere latza da, bidean aurkitzen dituzten harresiekin. Guk kartulinen bitartez esplikatu dugu guztia, baina ikastetxeko txikiak ez zekiten gauza askorik honen inguruan. Etxean ere egin dut berba gai honi buruz.




zer irakurri

Juan San Martin Liiburutegia



Goliat eta izarrak 6 urtetik aurrera

Maren eta Aiert Txindokira joan dira Joanes artzainarekin. Kasik igerian sentituko dira han. Kasik hegan. Elur jausi beldurgarri baten berri izango dute han. Eta pintore itsuarena. Eta izarrak edaten dituen Goliat txakurrarena...



Drakularen sekretua 8 urtetik aurrera

Transilvania: Esmeralda ederra jolas parke ijito baten jabea da eta, itxura denez... Drakula kondea bere atzetik dabilkio! Larryk eta Agatha Mysteryk, agerkari beldurgarri eta gertaera ulergaitzei aurre egin beharko diete.



Tximeletak hondartzan 10 urtetik aurrera

Uda bat. Bost egun. Tximeletak, Zarauzko hondartza amaigabea, eta, bi neskato, itsas-ertzean, olatuekin jolasean, ametsetan... Mundua ezberdina da aitonak oparitutako argazki-kameratik ikusita: mahastiak, margoak, altxorrak... Uda bat. Bost egun. Tximeletak, Zarauzko hondartza amaigabea, eta, bi lagun, itsaso urdinari begira, ametsetan.

Asaloj iklua (J.A. Mogel Ikastola)

J.A. Mogeiko ikasleek 'Asaloj iklua' jolasa aurkeztu digute, hau da, 'Aulki jokoa' alderantziz. Ohiko jolasean egiten den bezala pertsonak eliminatu beharrean, aulkiak eliminatuko dira pertsona kopurua mantenduz.

- 1- Musika entzuten den bitartean parte-hartzaileak aulkien bueltan ibiliko dira.
- 2- Musika eteten denean aulkietan eseri behar dira lurra ukitu gabe.



BIDEOA:

<https://etakitto.eus/txikitto/ja-mogel.html>

jolastokixan jolasian



ipuina

Teniseko pistako sekretuak



Eibarren tenisera jokatzeho pista bat zegoen. Beti tenis jokalari bat joaten zen entrenatzera bertara. Baina egun batean konturatu zen teniseko pista apurtzen ari zela eta udabetezera deitu eta alhateari kontatu zion ihusitakoa. Alhateak hau erantzun zion:

- Kaixo, Bonifazio Hankamotz jauna. Barkatu eragozpenak baina ez dugu teniseko pista berriko, bertan sekretu bat dagoelako.

Bonifaziok sekretua zein zen jakin nahi zuen, bestela ezingo zuen gehiago jokatatu. Berriz deitu zion alhateari eta sekretu hura esateko eskatu zion.

Alhateak, horrenbesteko interesa zuela ihusita, sekretua kontatu zion baina zin egin behar izan zion sekretua ez ziola inori kontatuko.

Kontua zen tenis-pistaren azpikaldean, lurpean, hilerri bat zegoela. Konturatuta zeudela ilargi betea zegoenean hilerriko arimak euren zuloetatik ater-

ratzen zirela eta hara! Gaur gauean ilargi betea dago!

Bonifaziok ez zuen ihusizun hura galdu nahi eta jantzi ondoren pista-ra joan zen arimahi ihustera. Han egon zen gaua heldu arte eta 00:00etan, han irten zuren arimahi...

Oso zatarrak ziren eta beldurgarriak... Bonifazio asho beldurtu zen eta 112-ra deitu zuen laguntza eskatzeko. Deitu eta deitu baina ez zion inork telefona hartzen, arimek elektrizitate-hableak apurtu zituzten-eta.

- Akabatuta nago! -pentsatu zuen Bonifaziok.

Bat-batean zerutik miraria eginez unihornio bat ateratu zen eta dena konpondu zen. Harrigarria!!! Arimahi euren lekuan sartu zituen eta dena, minutu batzuetan, bere onera itzuli zen. Bonifaziok eskerrak eman zizkion:


- Unihornio Jauna... -unihornioak ez zion bukatzen utzi eta berbetan hasi zen.

- Ez naiz unihornioa... -eta ustezko unihornioak etorri bezala alde egin zuen. Bonifazio baharrik utzi zuen.

Sinestu edo ez sinestu, sar dadila kalabazan.

Carla, Hegoi, Oier, Izaro





zu margolari